

ZUHAITZ TXIKI ITSUSIA

Bazen behin zuhaitz txiki bat, ikastetxe baten ondoan zegoena. Zuhaitzak ez zeukan historik, ez udaberrian, ezta udan ere. Inguruetako zuhaitz itsusiena zen eta horregatik triste bizi zen.

Zuhaitzak eguzkiari deitu eta hostoak eskatu zizkion, baina eguzkiak esan zion ezin ziola historik eman.

Gero, haizeari eskatu zizkion, baina haizeak esan zion berak hostoak kendu baino ezin zuela egin, ezin ziola historik eman.

Azkenik, euriari eskatu zizkion hostoak, baina alferrik, euriak ere ezin baitzizkion eman.



Zuhaitz txiki itsusia inoiz baino tristeago jarri zen.

Baina, egun batean, ondoko ikastetxeko neska-mutilak etorri ziren eta zuhaitza apaintzen hasi ziren koloretako paperekin eta zuhaitzaren adarretan itsatsi zituzten, hostoak balira bezala. Hura zen itxura polita zuhaitzak hartu zuena!

Aurrerantzean inguruetako zuhaitz ederrena eta alaiena izan zen.

1. Nori deitu zion zuhaitzak? Ordenatu irudiak 1etik 3ra eta azpian idatzi izena.

		
1	2	3

2. Sailkatu hitz hauek:

Triste	Ederra	Historik gabe	Paperak	Itsusia	Alai
--------	--------	---------------	---------	---------	------

HASIERAN	BUKAERAN